

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroko Gobernuak Alimenta azokaren bosgarren edizioa antolatu du

Enpresa-topagune honetan Foru Erkidegoko nekazaritzako elikagaien 28 enpresa eta Europa, Asia eta Amerikako 32 inportatzaile bilduko ditu

Lunes, 26 de septiembre de 2011

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzuk 2011ko Alimenta azoka inauguratu du gaur goizean Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hirian. Bosgarren edizioa du aurten eta bertan [Foru Erkidegoko nekazaritzako elikagaien 28 enpresa](#) eta Europa, Asia eta Amerikako 32 inportatzaile izango dira. Topagunea Nafarroako Gobernuak eta Merkataritza nahiz Industria Ganberak antolatu dute.

Alimentan dauden inportatzaileak honako herrialde hauetakoak dira: AEB (7), Mexiko (3), Brasil (3), India (2), Txina (2), Taiwan (1), Japonia (2), Erresuma Batua (2), Belgika (1), Polonia (1), Alemania (1), Danimarka (1), Finlandia (1), Frantzia (1), Holanda (2) eta Suitza (2).

Goicoechea kontseilariak bere agerraldian azpimarratu du Nafarroak nekazaritza-elikagaien industria garrantzitsua duela, sektore ekonomiko garrantzitsuenetako bat da eta Nafarroako ekonomian berriki bilakaera onena izan duena. 2010. urtean % 2,6 igo zen, Nafarroko ekonomia guztia baino bikoitza gehiago. Sektoreko enpleguari eutsi egin zaio egungo egoera orokorra txarra izan arren; 14.000 langile daude nekazaritza-elikagaien industrian eta esportazioen estaldura-tasa % 171,3koa da.

Gainera, kontseilariak ere nabarmendu du nekazaritza-elikagaien sektoreak zer garrantzi estrategikoa duen, eta ez bakarrik ikuspegi ekonomiko batetik. "Ekonomiaren sektore eragile bat da, lehen sektoreari tira egiten diona zalantzarik gabe, eta lurraldearen egituratze handiago bat izaten laguntzen lehen mailako elementua dena".

2011ko Alimentak aurreikusitako 91.500 euroko kostua du, eta kopuru horretatik Nafarroako Gobernuak gehienez ere 45.750 euro jartzen du, erakusketariak 16.500 euro eta Nafarroako Ganberak 29.250 euroko zuzeneko gastua.

Alimenta antolatzen den bosgarren aldia da. 2007an eta 2008an, urte bakoitzean edizio ezberdin bat izan zen; bata Tuteran, Europako erosleentzat, eta bestea, Iruñean, Asia eta Amerikakoentzat. 2009an, ahaleginak batu eta nekazaritza-elikagaien sektorerako oihartzun handiagoko ekitaldi bakar bat aurkezteko, bi deialdiek bat egin eta Iruñean antolatu zen Navarra Gourmet-en barruan.